



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

**2021eko Aurrekontuaren Likidazioa**

Kontu-hartzaileak osatu duen Udaleko 2021eko Aurrekontuaren Likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau ebatzi dut:

Lehena.- Udaleko 2021eko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea.

Hona hemen horren laburpena:

1. (+) Funts likidoak		5.998.262,66
2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak		2.647.695,69
-(+ ) Urteko aurrekontukoak	2.327.340,74	
-(+ ) Itxitako aurrekontuetakoak	312.081,76	
-(+ ) Aurrekontuzkoak ez diren eragiketetak	8.273,19	
3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak		2.062.440,59
-(+ ) Urteko aurrekontukoak	1.429.726,30	
-(+ ) Itxitako aurrekontuetakoak	0,00	
-(+ ) Aurrekontuzkoak ez diren eragiketetak	632.714,29	
4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak		0,00
- (-) Behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak	0,00	
-(+ ) Behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak	0,00	
I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 – 3 + 4)		6.583.517,76
II. Kobrantza zalantzarikoko saldoak		259.259,56
III. Gehiegizko finantzazio lotua		
IV. Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina (I – II – III)		6.324.258,20
5.- Aurtengo Aurrekontuko eragiketen emaitza:		-1.596.613,75
6.- Aurreko ekitaldietan likidatutako Aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-41.370,48
7.- Doiketak, Altxortegi-Gerakinaren bidez finantzatutako obligazioeng.:		4.998.099,53
8.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik		0
9.- Aurrekontu-emaitza		3.360.115,30

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari Likidazio-espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatza Osoari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñati, 2022eko otsailaren 28an  
Alkateak  
Izaro Elorza Arregui

The image shows a circular official stamp of the Oñati City Council. The stamp contains the coat of arms of Oñati and the text "OÑATI UDALA" and "ALKATEGOA". Overlaid on the stamp is a handwritten signature in blue ink.